


BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



RICARDO MARTIN. PHOTO CARTE. KUTXATEKA.

BIZKAIKO GREBALARIEN SEME-ALABAK GIPUZKOAN

Irudi honek, nahiz eta bisualki gordina eta oso gogorra izan, Gipuzkoako langileen elkartasuna erakusten du, lan baldintza justuen alde greban zeudela, 1923ko abuztuaren 23an jipoituak izan ziren meatzari bizkaitarrekin. Horietatik 80 atxilotuak eta espetxeratuak izan ziren. Urte hartako abuztuaren 31n egindako argazkian, meatzari grebalarien 50 seme-alaba Donostiako Amarako tren geltokira iritsi zireneko unea jasotzen da. Geltokian, langile elkarteetako kideek harrera egin zieten haurrei, eta Agirre jatetxera eramán zituzten bazkaltzera. Agirre jatetxea Portu kaleko 3. zenbakian zegoen, bere egoitza sozialetik oso gertu. Bizkaiko meatze-arroan greba luzatu egin zenez, eta armadak eta guardia zibilak meatzarien aurka egindako erasoek egoera gogorra eragin zuten, haur horiek Gipuzkoako familien zaintzapean geratu ziren, hainbat herri desberdinetan, greba amaitu arte. Irailaren 1ean, Bilboko "El Liberal" egunkariak jakinarazi zuen grebalarien seme-alabei Donostiarako trena hartu aurretik «agur maitagarria» egin zitzaiela geltokian. Era berean, kartzelan zeuden meatzarien emazteen protesta jaso zuen, haiek askatzeko eskatuz, eta baita «...grebaren konponbidea lehenbailehen, hainbeste etxe inbaditzen dituen miseriari irtenbidea emateko...». Egun horretan bertan, "La Voz de Guipuzcoa" egunkariak haurren iritsiera jaso zuen fotonotizia batekin eta «Borroka sozialaren ondorioak. Meatzari grebalarien seme-alabak» izenburupean.